



**zaindu
jarrerak!**

eskerrik asko

Gurasoek eredu
izan behar dute

*Eskola Kirol Kontseiluak
Zaindu Jarrerak kanpaina
jarri du abian*




- 3 Inkesta
- 4 Proposamenak eta kexak
- 5 Soreasuko garajeak salgai
- 6 Enparagain eta Damasoko obrak
- 7 Ikastaroak
- 8 Erreportajea
- 10 Su detektoreak
- 12 Motxean
- 14 Auzoak
- 15 Mugaz muga

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala
 Egilea: Prentsa bulegoa
 Argazkiak: EREGI, Euskara eta Komunikazioa

Diseinua: EREGI, Euskara eta Komunikazioa
 Ale kopurua: 7.000
 L.G: SS - 1148/91

Paper birziklatuan egina



telefono interesgarriak

Zentralita	943 15 72 00	Euskara Patronatua	943 81 45 18	Bailarako Nekazari	
Alkatetza	943 15 71 85	Udal Euskaltegia	943 81 19 47	bulegoa	943 81 24 85
Idazkaritza	943 15 71 98	Lapatx Zabortegia	943 15 18 75	Enplegu Bulegoa	943 15 03 00
Kontuhartzailetza	943 15 71 89	Azpeitia Lantzen S.A.	943 15 71 83	1. Epaitegia	943 02 51 91
Hirigintza	943 15 71 91	Ingurugiro Etxea		2. Epaitegia	943 02 51 92
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92	Fundazioa	943 15 17 13	Erregistro Zibila	943 02 51 99
Kultura	943 15 70 68	Tokiko Agenda 21	943 15 70 70	DYA	943 46 46 22
Komunikazioa	943 15 79 82	Kontsumitzaileen		Gurutze Gorria	943 85 32 97
Kirolak	943 15 00 95	Informaziorako Bulegoa	943 15 71 93	S.O.S. Deiak	112
Parekidetasuna	943 15 79 28	Baigera I	943 81 51 71	Taxiak	943 81 13 07
Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79	Baigera II	943 81 23 89	Urkome	943 81 65 00
Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16	Ingurugiro Etxea			
Zapo Txoko	943 15 71 61	Museoa	943 81 24 48	Sexologia zerbitzua	943 15 10 30
Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60			Etxebizitza bulegoa	943 81 66 99
Eguneko Zentroa	943 15 74 96	Alkoholiko Anonimoak	629 14 18 74	Astearte eta ostegunetan	
Liburutegia	943 15 71 95	AL-ANON Alkoholikoen		18:30etik 19:00etara eta asteazkenetan	
Udaltzainak	943 15 13 13	Sendiak	943 47 54 03	12:00etatik 14:00etara.	
Suhiltzaileak	112	Trenaren Museoa	943 15 06 77	Baserritarren produktuen	
Igerilekua	943 81 41 21	Anbulategia	943 02 54 00	merkaturatze bulegoa	943 15 10 29
Kiroldegia	943 81 30 69	Larrialdiak	943 02 54 01	Asteartean 10:00etatik 13:30era eta	
Izarraitz Pilotalekua	943 81 25 63	Ertzaintza (Azkoitia)	943 08 37 80	ostegunetan 16:00etatik 19:30era.	

zer dio kaleak?

Herriko bidegorri sarea handitzen doa. Erabiltzeko ohiturarik ba al duzu?



Maria Isabel Irure

“Nik badut bidegorria erabiltzeko ohitura, Azpeitia eta Azkoitia bitarteko batik bat eta Udala bidegorrien sarea handitzen joatea oso ondo iruditzen zait. Izan ere, jende asko ibiltzen da bide hauetatik, Azkoitia bidean adibidez, 9:00etatik 10:30era pertsona ugari ibiltzen da pasieran. Herri barruko gune desberdinak bidegorriz lotzea ere oso ondo dago, egiten badira ibiliko ditut nik behintzat”.



Nikolas Galarraga

“Ni asko ibiltzen naiz bidegorritik, asko. Askotan bizikletaz joaten naiz Zumarragaraino doan bidegorritik eta egia esan, oso ondo dago. Horregatik, oso ondo iruditzen zait Udala Azpeitiko bidegorri sarea handitzen joatea. Gainera, gure inguruan jende asko ibiltzen da bidegorrietatik eta horrelako errepideak gehiago bultzatu eta egin behar liratekeela uste dut gero eta jende gehiago ibili dadin”.



Idoia Arruti

“Niri oso ondo iruditzen zait bidegorri sarea handitzen joatea, gure etxean gainera, badago erabiltzeko ohitura. Horrelako ekimenak gehiago bultzatu beharko liratekeela pentsatzen dut, honela bizikletan ibiltzeko aukera gehiago izango genituen. Bestalde, proposamen bat, Azpeitia eta Urrestilla arteko bidegorria lehenbailehen egin beharko litzateke, errepide hori oso gaizki baitago bizikletan joan nahi baduzu”.



Luis Mari Giralt

“Ia-ia egunero erabiltzen dut Loiolako bidegorria, Azpeitia eta Azkoitia artekoa, pasieran egiteko. Izan ere, auto eta motoekin eta gaur egun izaten den trafiko handiarekin, ke eta zarata asko izaten da eta hobeto joaten da bidegorritik, berdina gertatzen da herri barruko guneetan eta hori dela-eta, oso ondo iruditzen zait bidegorri sareak handitzen joatea. Lasaiago ibiltzeko aukera ematen du”.

Proposamenak, kexak...



Hesia igerileku atzean

Igerileku atzean hesiak jartzea eskertuko nuke, ibaira erortzeko arriskua baitago.

Loiolako komunak

Zer gertatzen da Loiolako komunarekin? Oso usain txarra egoten da, sartzeko gogorik ez du ematen, oso beharrezkoa bada bakarrik. Egin behar duzuna egin, ukitu gabe eseri eta azkar alde egin, arnasa ere ezin da lasai hartu. Ez al dira ba komun barruak ondo garbitzen? Hau guztia ondo beharrez egiten dut. Mila esker.

Agirreko espaloiak

Noiz konpondu behar dituzue Agirre auzuneko "espaloiak"? Gogorazi nahi

dizuet, oinezkoentzako ibilbideak oso egoera txarrean daudela, zati batzuetan eskailerak puskatuta, harriak solte daude... Uste dut auzo honetako jendea nahiko haserre dagoela. Mesedez, ez ahaztu Agirre auzunearekin.

Eskerrik asko.

Edurne Enparan

Lehengo gasolindegia txikia

Perez Arregi Plazan garai baten gasolindegia txikia zegoen eta kendu zutenetik Lapatz berria bilakatu da, plaza guztia berritu eta gero, penagarria iruditzen zait hori dagoen bezala uztea.

Akamendi

Beirarentzat ontzi bat Akamendi etxe inguruan? Beste ontzien ondoan? Eskerrik asko

Elisabeth Garcia

Hautzaindegia ondoko ontziak

Euskal Herria auzunean hautzaindegia dagoen etxeetarako garajeen sarrera inguruan bi zabor ontzi zeuden. Hauek lekuz mugitu ziren Euskal Herria 46ko etxe azpi ingurura, eta orain berriz, zebra bide ondoan jarri dituzte. Gauza da haur asko pasatzen dela zebra bide

horretatik, eta nahi gabe bertara heltzen dira, edo inguruan jolasten dute. Beraz, uste dut hobeto zeudela hasieran zeuden tokian, edo mugitu ondoren lehenbiziko aldiz jarri zituzten tokian, pare horretan ez baitago zebra biderik eta ez da jende asko pasatzen den tokia. Gainera orain dauden tokian, aldapa behera geratzen dira eta zaborra jasotzen duten langileek frenoak jartzen ez badiote haize zakarra ateratzen denean mugitu egin daitezke, eta alboan dauden aparkalekuetako autoak matxuratu. Beraz, uste dut hobe izango dela beste toki batean jartzea, autoak matxuratu ezkerro udalak izan dezakeen gastua handia izan daitekeelako, izan ere, autoak aparkalekuan ongi daude aparkatuta, beraz, ez da autoaren jabe denaren errua izango. Eskerrik asko.

Hautzaindegira eta Karmelora umeak eramaten dituen gurasoa

Basarte poligonoa

Basarteko poligono irteeran errotonda baten premia handia ikusten dut. Ez behar larriren bat pasatu aurretik ezer egiteko asmorik ba al du Azpeitiko udaletxeak? Azkoitiko udaletxeak? Bien artean?

Ekin lanari.

Basarteko poligonoan lan egiten duen pertsona bat



www.azpeitia.net



Sartu zaitez www.azpeitia.net udal webgunean

- Tramiteak eta ordainketak etxetik egiteko modua eskaintzen dizu.
- Udal albisteak uneoro ezagutzeko.
- Zure kexa, iritzi eta iradokizunak plazaratzeko.
- Plenoetako aktak, udal ordenantzak, hiri antolamenduaren plan orokorra eta beste hainbat dokumentu ofizial kontsultatzeko.

- Herriaren inguruko informazio erabilgarria eskuratzeko, ekitaldien agenda eta guzti.

Eta gainera:

- Sexologia zerbitzua on-line: hileko azken ostiralero sexologoak zuen kezkak on-line erantzungo ditu.
- Udal liburutegia: bertako katalogora on-line sartzeko aukera eskaintzen dizu udal webguneak.

www.azpeitia.net. Udala zure eskura, klik batean.

Sareasuko garaieak salgai jarri dira

Azpeitiko Udalak egiten duen eskaintza berria herritar guztiengana zabaldu da



Sareasuko lurrazpiko aparkalekuak eta trastelekuak salgai jarri ditu berriro Azpeitiko Udalak.

Kulturguneko lurrazpiko bi solairu aparkalekuak egiteko erabili dira. Lehenbiziko solairuan errotazioko 129 plaza daude eta bigarrenengoan, aldiz, saltzeko 109 plaza. Hauetatik 37 garaie aparkalekuak eraikitzen hasi zirenean egindako deialdian saldu ziren.

Garaieak eraikitzen ari zirenean egindako deialdian alde zaharrean etxea edo enpresa zutenei zabaldu zitzairen aukera baina oraingo honetan, herritar guztiek erosi ahal izango dute. Bestalde, erosterakoan berrikuntza bat ere ezarri dute. Honela, eskaerarekin batera 1.800 euroko fidantza jarri behar da eta une honetatik aurrera, garaiea erabiltzeko

aukera izango da. Gainontzeko ordainketa eskritura publikoarekin batera egingo da, abenduaren bigarren hamabostaldian hain zuzen ere. Garaie bakoitzak 15.258,62 euroko prezioa du eta trastelekuak, berriz, 3.051,73 euro. Gainera, pertsona bakoitzak gehienez bi garaie erosi ahal izango ditu, eta trastelekuak, nahitaez, garaie bati lotuta erosi beharko dira.

Eskaria udaletxeko harreraren egin beharko dute eta eskaria egiteko inprimakia, eroslearen nortasun agiriaren fotokopia, salerosketa berme bezala adierazitako diru-kopuruaren ordainketaren egiaztagiria, erosle izateko baldintzak betetzen dituela jasotzen duen egiaztagiria eta turismo motako ibilgailuaren jabetza egiaztagiria aurkeztea beharrezkoa izango da.

Hileko edo urteko bonoak

Garaie plaza erosi beharrean, alokatzeko aukera ere eskaintzen du Udalak hileko edo urteko bonoen bidez. Hileko bonoa 50 euro ordainduko da eta urtekoa 500 euro. Bonoa dutenek autoa bigarren solairuan aparkatu behar dute, P hizkiarekin edo Pribatu bezala izendatuta ez dauden lekuetan. Era berean, erabiltzaile hauek txartel berezi bat izango dute aparkalekuetara sartzeko, eta txartel hori eskuratzeko berme moduan 10 euro ordaindu beharko dituzte. Txartela itzulitakoan berreskuratuko dute dirua.



Azpiegiturak hobetzen jarraitzen du Udalak

Enparangain eta Damasoauzoetan lanak abiatu dira



Enparangain eta Damaso auzoetan lanak burutuko diren gunek.

azpeitiko azpiegitura eta zerbitzuak hobekitzeko bidean jarraitzen du Udalak eta obra desberdinak abian jarri ditu azkenaldian. Batetik, Enparangain guneko bide segurtasuna hobetuko da eta bestetik, Enparan eta Damaso auzoen arteko bidegorria eraikiko da.

Gau Argi enpresa aurrean zebra bidea eta semaforoak ezarriko dira Enparangaineko bide segurtasuna hobetzeko asmoz. Honez gain, errepide ondoan dagoen asfaltatu gabeko gunean, inguruko etxeetako balio duen sarreraren, zoladura berria jarriko da. Modu honetan, aparkalekuak egingo dira eta autobusak geldialdia egiten duenerako balio izango du. Azkenik, gune guztia

argizatuko da. Bestalde, Gau Argi pareko ezkerreko giroa galarazi egingo da eta autoek beharrezkoa izango dute Ezkuzta aurreko sarreraren itzulua egitea.

Xaxarki enpresak egingo dituen lanak urte amaiera arte irautea aurreikusten da eta hauek amaitu bitartean, segurtasun neurriak hartuko dira. Aurrekontua 172.000 eurokoa da eta Gipuzkoako Diputazioak erdia ordainduko du.

Bestalde, Diputazioak egin behar duen Lasaroko bidegorriaren lanak aprobetxatuz, Udalak Enparan Dorretxetik hasi eta Damasoko ehorztetxe aurrera doan bide arteko bidegorria egitea erabaki du.

Modu honetan, espaloia gaur egun dagoen bezala geldituko da, ondoren, bidegorria egingo da eta aldamenean, aparkalekuak joango dira. Kili-Kolor inguruko espaloia barrurago sartuko da.

Obra hauek Xaxarki enpresak egingo ditu eta urte amaierarako amaituta egotea espero da. Aurrekontua 300.000 eurokoa da eta erdia Eusko Jaurlaritzako Izartu proiektuaren bidez finantzatuko da.

Era berean, Betharram ikastetxeke ataria asfaltatu dute 120.000 euroko aurrekontuarekin. Gainera, lan hauek aprobetxatuz, lur azpiko hodiak erreparatu dira eta euri eta ur zikinen tutuak banatu dira.

Guztientzako ikastaroak prest

Hezkuntza, Gazteria eta Parekidetasun sailek tailer eta hitzaldi desberdinak antolatu dituzte



lazko gitarra ikastaroko taldea emanaldia eskaintzen.

Ikasturte hasierarekin batera, aisialdian goatzeko ikastaro, tailer eta hitzaldi desberdinak prestatu dituzte Udaleko Hezkuntza, Gazteria eta Parekidetasun sailek. Urrian hasi eta ekaina bitartean, hainbat gai jorrazteko aukera izango dute, modu honetan, azpeitiarrek.

Gazteria sailak, adibidez, sei ikastaro eta hiru hitzaldi emateko asmoa agertu du. Urritik abendura bitartean sendabelarren eta dantza afrikarren ikastaroa eta teknologia berrien hitzaldia eskainiko ditu; urtariletik martxora euskal jolasak eta kantak eta ipuinak kontatzeko ikasteko aukera izango da eta haurren heziketari buruzko solasaldia egongo da; eta apiriletik ekainera bitartean, berriz, lerrokako

patinak eta sukaldaritza ikastaroak eta osasuna eta elikadurari buruzko hitzaldia eskainiko dituzte.

Izena eman edota informazio gehiago eskuratu nahi dutenek Plaza Txikian kokatuta dagoen Gazte Informazio Bulegora joan edota 943 157160 telefonora deitu beharko dute.

Hezkuntza departamenduaren eskutik, aldiz, Chi-kung, Umetxo bat dugu gure bizitzan, Puntua, Ehoziri-lana, Ebaketa eta jantzigintza, Eskulanak eta Marrakzi artistikoa eta margolanak ikastaroez goatzeko aukera dago. Ikastaro eta tailer hauetan parte hartzeko eskaintza bakoitzeko arduradunarekin jarri behar da harremanetan eta beharrezko informazioa udaletxean dago eskuragai.

Jabetze Eskola errepikatuz

Bestalde, Parekidetasun sailak Jabetze Eskola jarri du abian berriro, “estreinako ikastaroez izandako arrakastari jarraipena emateko asmoz”. Honela, hilabete honetan abiatu dira Sindikatu Zaharrean Antzerkia, Gitarra, Antzinako emakumeak: gure amandreengandik ikasten, Emakumeen txokoa denon artean eraikiz eta Azpeitia feminismoaren begietatik; beste herri eredu baten bidean saioak eta emakumeen topaketa hauen bitartez, “iraganari eta etorkizunari begiratuko” zaiela adierazi dute arduradunek.



Haurren kirol-praktika hezgarria izan dadin



Asteburuetako eskola-kirolaren baitako jardunaldietan gurasoek seme-alaba, entrenatzaile eta epaileei eragiten dieten presio ezkorrak ekiditeko kanpaina abiatu du Eskola Kirol Kontseiluak.



Azpeitiko eta Azkoitiko arduradunak kanpainaren aurkezpenean.

Zaindu Jarrerak!. Horrela izango du lema Eskola Kirol Kontseiluak 2010-2011 denboraldian eskola-kirolean parte hartzen duten gurasoen jarreretan eragiteko antolatu duen kanpaina berriak. Azken aldian ikastetxeetako atarietan ikusi diren gurasoen jarrerarekin kezkatuta agertu dira Azpeitiko eta Azkoitiko udaletako ordezkariak, izan ere, seme-alabei, entrenatzaileei eta

epaileei egiten zaien presioa urrutira iritsi dela pentsatzen dute, irainetara heldu ere baitira.

‘izartxoei’ errendimendua izan dezaten eragiten zaien presioa, izugarritzko kaltea egiten die”

“Gehiegizko garrantzia ematen zaie kirol-praktikaren balore ‘objektiboei’ eta horrekin itsututa gaude. Kirol-praktika, berez, ez da hezgarria, egoki bideratu eta irakatsi behar da. Horretarako, eta jardueraren baldintza hezgarriak bermatzeko, eskola-kirolaren eragile guztien lankidetzaz ezinbestekoa da, eta zentzu horretan gurasoek eragin handia dute. Gurasoek inoiz egi bihurtu ezin izan duten amets bat seme-alaben bidez lortu nahi izatea ez da egokia. Denok

dakigu, kirol munduan benetako izarrek oso gutxi direla, eta famara iristeko bidea, berriz, oso luzea. Beraz, ‘izartxoei’ errendimendua izan dezaten eragiten zaien presioa, izugarritzko kaltea egiten diela azpimarratu beharra dugu”, agertu dute arduradunek.

Lehenagotik ekimen desberdinak egin izan dira bultzatu beharreko baloreez eta gurasoen jarrerekin, 2003-2004 ikasturtean adibidez, *Txapelduna ez izatearen eskubidea* aldarrikatu zen. Baina ekitaldi hauek izan duten eragin urriaren aurrean, kanpaina berria prestatu dute, beste herrialdeetan egin duten modura, besteak beste, Bartzelonako *Compta fins a tres*, Aragoiko *Si tus hijos hacen deporte...* este mensaje es para ti edota Castelloko *Los padres son importantes para que sus hijos hagan deporte*.



Eskubian, haurrak saskibaloiko partida jokatzeko eta ezkerrean, guraso batzuk lehia ikusten.

Kanpainaren hedapena

Zaindu jarrerak! proiektuaren zabalkuntza honela egingo dela aurreratu dute ordezkariak:

- **NOIZ?** Urriaren 9an izan zuen hasiera, baina ez du iraupen finkoa izango, Kirol Kontseiluak egindako balorazioaren baitan moldatuko baita. Dena den, saskibaloia txapelketa hasierarekin 2 edo 3 jardunaldi erabili nahi dira, eta txapelketa amaitzeko dagoela, beste pare bat jardunaldi. Eredu hori, urtarilean errepikatu nahi da futbol txapelketaren hasierarekin batera.

- **NON?** Eskola-kirolaren baitako partiduak jokatu diren Azpeitiko eta Azkoitiko kirol-instalazio guztietan egingo da kanpaina.

- **NOLA?** Bi ekintza garatuko dira:

1. Partiduak jokatzeko erabiliko diren kirol-instalazioetan, ohartarazteko panel informatiboak jarriko dira.

2. Entrenatzaile bakoitzak, Zaindu jarrerak! mezua duen pegatina bana banatuko du bere taldeko jokalarien artean, euren kamisetetan erantsi

dezaten. Asmoa da, hurrengo asteetako partiduetan jokalariek euren gurasoei pegatina horiek jaritzea, ekintza sinboliko gisa.

‘izartxoei’ errendimendua izan dezaten eragiten zaien presioa, izugarritzko kaltea egiten die”

Eskola-Kirolean, Azpeitiak eta Azkoitiak partaidetza-maila eredugarria du Gipuzkoan, 1.000 haur inguruk hartzen dute parte asteburuetan izaten diren txapelketetan, eta horregatik, gurasoen jarrerak ere hobera egingo duela espero dute Eskola Kirol Kontseiluko kideek. “Ziur gaude, guraso eta kirolean diharduten beste eragile guztion inplikazioarekin esku artean dugun gai honetan ere, eredugarri izatera iritsiko garela”. Kanpaina ondo joan dadin eta bere fruituak eman ditzan, gurasoek garbi izan behar dituzten mezuak helarazi nahi dituzte:

- Seme-alaben kirol-praktika inguruan sor daitezkeen edozein zalantza edota iradokizun azaltzeko, ikastola-ikastetxeetako kirol-koordinatzailearekin harremanetan jartzea.

**ZURE SEME-ALABAK
KIROLA EGIN
NAHI BADU...**



MEZU HAU ZURETZAT DA!



- Etxeetan banatu diren diptikoetan agertzen diren aholkuak jarraitzea (aita-ama “egokiaren” dekalogoak).

- Adin hauetan kirol-praktika heziketarako bidea dela, eta inoiz ez, berez, helburu bat.

- Ez ahaztea, Eskola-kirolean, benetako protagonistak umeak direla, ez gurasoak.

Azpeitiko 70 adineko pertsonen suteen prebentziorako zerbitzua izango dute beren etxeetan

La Caixa eta Azpeitiko Udalaren arteko akordioari esker Azpeitiko 84 urte baino gehiago dituzten eta etxean bakarrik bizi diren 70 adineko pertsonen suteen prebentziorako eta larrialdi kasuetarako ebakuazio programa jarriko da abian.



Unai Darreche Azpeitiko La Caixako zuzendaria, Ana Mendizabal zinegotzia eta A tiempo enpresako Jon Ensunza.

a tiempo enpresa arduratuko da programa berria kudeatzeaz, 10.000 eurotako aurrekontua du eta La Caixa-ren Obra Social egitasmoak finantzatuko du %100ean, honela, bankuak bat egiten du Azpeitiko Udalak herriko adinekoen egoerarekin eta hauen bizi-baldintzekin duen kezkarekin. Proiektu berri honen

helburu nagusia kasu hauen aurrean larrialdi egoeraren berri emateko behar den denbora murriztea da eta, horretarako, pertsona hauen etxeak eta eraikinak aztertuko dituzte. Horretaz gain, etxe bakoitzean sua modu eraginkor batean atzemango eta kontrolatuko duen sistema berritzaile bat ezarriko dute.

“Helburu nagusia larrialdi egoeraren berri emateko behar den denbora murriztea da”

“Hasierako fase honetan, programa herriko 70 etxetara zuzenduko da. Ekimena oso interesgarria dela pentsatzen



dugu, gainera, zoritxarrez Azpeitian baditugu horrelako aurrekariak”, agertu du Gizarte Zerbitzuetako zinegotzi den Ana Mendizabalek.



Programaren hiru faseak

Proiektua hiru fasetan banatuta dago. Lehenengoan, prebentzio azterketa bat egingo dute; bakarrik bizi diren 84 urtetik gorako pertsonak bisitatuko dituzte, eta baita adin bereko beste pertsonekin bizi direnak ere. Horretaz gain, etxe hauetan arriskuak non egon daitezkeen jakiteko prebentzio azterketa bat egingo dute; elektrizitate aparatuak, konexioak edota gas

instalakuntzak arakatur. Era berean, erabiltzaileei oinarrizko segurtasun azalpenak emateko eta prebentzioari eta segurtasunari buruzko liburuxka banatzeko aprobetxatzen dituzte bisita hauek.

Bigarren fasean, ke detektagailuak jarriko dituzte etxebizitzetan. Tresna hauek soinu ozen bat ateratzen dute, modu honetan, larrialdi kasuetan bizilagunak ere kontura daitezten. “Normalean pertsonak ez dira erreta hiltzen, asfixiatuta baizik. Horregatik lehenago ohartu eta mugitzeko detektagailua da hau, eta mugikortasun arazoak dituztenentzat, berriz, bizilagunak konturatuko dira zarata ozenari esker”, azaldu du A tiempo enpresako Jon Ensunkak.

“Ke detektagailuek soinu ozen bat ateratzen dute, bizilagunak ere kontura daitzen ”

Azkenik, hirugarren fasean, etxebizitza bakoitzaren eskema bat egingo dute, erreakzio denborak murrizteko eta kea husteko lan azkar bat egin ahal izateko. Kasu bakoitzean, eraikinaren irisgarritasuna eta etxebizitzaren antolamendua aztertuko dituzte. “Sutea gertatzen denean suhiltzaileek ezin izaten dute ikusi etxe barrua kea dela-eta, eta paretak ukitzen sartzen dira. Horregatik, krokis hauek Udaltzaingoak izango ditu eta larrialdi kasuetan suhiltzaileen lana erraztu ahal izango da”, gaineratu du Ensunkak.

“Urtean behin bisita egin zaie mantenua aztertu eta proiektuaren jarraipena egiteko”

Amaitzeko, urtean behin bisita egingo zaie adineko pertsonari hauei jarraipena egiteko, mantenu zerbitzua ere eskainiko du enpresak eta erabiltzaileek arreta telefonoa izango dute eskura, zalantzak argitzeko eta behar duten informazioa jasotzeko.

Loiola Berrikuntza Fundazioaren lehen saioa



Entitateko gerente berria den Begoña Beobide aurkeztu zuten

Loiola Berrikuntza Fundazioak irailaren 17an egin zuen martxoko aurkezpen publikoaren ondorengo lehenbiziko saioa. Gipuzkoako Ahaldu Nagusi Markel Olanok Oinartxoko egoitza bisitatu zuen Julian Eizmendi eta Asier Aranbarri alkateekin eta jarraian, Fundazioko enpresako arduradunekin bildu ziren Foru Aldundiak krisi egoera ekiditeko dituen asmoen berri emateko, eta batik bat krisi garai honetan enpresen egoera eta erronkak bailarako enpresetako hainbat arduradunen eskutik zuzenean jasotzeko. Era berean, Loiola Berrikuntza Fundazioak entitateko gerentea izango den Begoña Beobide azpeitiarra aurkeztu zuen. Julian Eizmendi buru duen Fundazioak Urola Erdiko eskualdean berrikuntzaren kultura bultzatu eta gidatzeko helburu nagusia du eta babesle talde bat du, patronatua, eta Iraurgi Lantzen eta Urola Erdiko Industrialdea baltzu publikoek eta Antzibar S.A., Biele S.A., Corrugados Azpeitia S.L., Grupo Glual S.L., Grupo Sarralle S.L., Ibarmia S.L., Juaristi TSCO S.L. eta Sammic S.L. enpresek osatzen dute. Deustu Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea, Cidemco Fundazioa, XVIII. Mendeko Ikerketarako Xabier Maria Munibe Nazioarteko Institutua eta Innobasque, berriz, laguntzaile moduan ibiltzen dira.

Albina Arregik 100 urte



Julian Eizmendi Azpeitiko alkatea bere etxera gerturatu zen zoriontzeko

Albina Arregi Urbietako azpeitiarrak 100 urte bete zituen joan den irailaren 14ean eta Azpeitiko Udalak omenaldia eskaini nahi izan zion herri guztiaren izenean. Horrela, Julian Eizmendi alkatea eta Gizarte Zerbitzuetako teknikari den Edurne Zubia, Landetako Atxubiaga etxera gerturatu ziren Albinari lora sorta eta egurrezko eskultura bat emateko. Eskultura honetan, Albinaren bi baserrien etxaurreak agertzen dira; hain zuzen ere, Loiolako Etxearreta eta Landetako Atxubiaga. Izan ere, Albina Etxearreta baserrian jaio zen baina Atxubiagara joan zen ezkontutakoan. Bost seme-alaba izan arren, denbora aurkitzen zuen baserriko baratza sortzeko eta ondoren, baratza horrek emandako produktuak saltzen hasi zen azokan. Ehun urte asko dira baina Albina ikusita ez da hainbesterako, eta horren adibide garbi bezala, egunero egunkaria irakurtzen duela betaurrekotik gabe. Zorionak Albina!

Imanol Elias, ohorezko kronista



Horrela izendatu du Udalak herriko historiagile ezaguna

azpeitiko herriak badu bere ohorezko kronista. Urriaren 7an egindako Udalbatzak aho batez erabaki zuen Imanol Elias historiagile azpeitiarra horrela izendatzea eta Julian Eizmendi alkateak egurrezko eskultura bat eman zion izendapen bereziaren seinale bezala: “Ohorezko izendapena hau ondo merezita du, izan ere, zerbait behar dugun bakoitzean beti jotzen dugu beregana eta berak idatzitako liburuetara. Segi horrela Imanol!”, agertu zuen alkateak. Imanol Eliasek hainbat gai eta arlo desberdin jorratu izan ditu, besteak beste, antzerkigintza, politika, kazetaritza eta literatura, beti ere herriaren alde lanean, baina Azpeitiko Herri Gutunaren 700. urteurrena ospatzen ari garen honetan, Udalak historiagile bezala eskaini izan duen lana eta laguntza eskertu nahi izan dio modu honetan. Eliasek hunkituta jaso zuen izendapena eta oroigarria eta Udala eskertu nahi izan zuen: “Eskerrik asko, lagun bat izango duzue nigan behar nauzuen guztietan”.

Nuarbeko etxebizitzak, zozketara berriro



Deialdi berri honetan 2009 urteko diru-sarrerak hartuko dira kontutan

azpeitiko Udalak tasatutako 9 etxebizitza egin zituen Nuarden eta ekainean burutu zen zozketa. Prozedura guztia eman ondoren, ordea, bi etxebizitza esleitu dira eta gainontzeko zazpiak berriro zozketara eramatea erabaki du Udalbatzak. Etxebizitza hauek hiru logela, garajea eta trastelekua izango dute eta 156.000 eta 180.000 euro bitarteko prezioa izango dute. Azpeitia Lantzenek zabaldu duen deialdiak berrikuntza bat izango du eta zozketan parte hartu nahi dutenen 2009 urteko diru-sarrerak hartuko direla kontutan aurreratu zuten arduradunek. Horrela, gutxieneko diru-sarrerek ezingo dute 9.000 euro baino txikiagoak izan. Betebeharrei dagokienez, hiru aukera hauetatik bat bete beharko da; Azpeitian erroldatua egotea azkenengo bost urteotatik gutxienez hiru urtean, Azpeitian lanean jardutea azkenengo hamar urtetan edota herrian erroldatu egon izana azkenengo hamabost urteetatik gutxienez bost urtean. Nuarbeko etxebizitza tasatuen zozketan parte hartu nahi duten interesatuek Azpeitia Lantzen baltzuen bulegoan eman behar dute izena azaroaren 15 baino lehen.

Hiru haurrekin jarri dute abian Zurrumbilo haurreskola

Matrikulazio epea zabaldua mantenduko da ikasle kupoaren %60ra iritsi bitartean



Udaleko, Partzuergoko eta Eusko Jaurlaritzako arduradunak inaugurazio ekitaldian.

azpeitiko Udaleko arduradunek eta Eusko Jaurlaritza eta Partzuergoko ordezkariak irailaren 14ean inauguratu zuten Urrestillako Zurrumbilo haurreskola berria. Auzotarrek horrela eskatuta, Urrestillako eskola zaharreko instalakuntzak erabat berritu dira herritarrei zerbitzu berri bat eskaintzeko asmoz.

“Urrestillako biztanleria gora doa eta horrekin batera, zerbitzu eta azpiegiturak ere gehiago izan behar dute. Aurreko gobernuaren proiektua dugu hau, baina talde guztiok bultzatutakoa. Espainiako Gobernuaren diru-laguntza aprobetxatuz, Eusko Jaurlaritzarekin eta Partzuergoarekin izandako harremanak eskertu behar dugu eta urrestildarrek ere lagundu dute egikaritzen, horrenbestez, zorionak Urrestillari!”, adierazi zuen Julian Eizmendi alkateak.

Hiru haurrekin ireki ditu atea Partzuergoari atxikitako zentroak, azarorako beste ume bat gehituko da eta 2011 urte hasieran guztira sei haur ibiltzea espero dute ordezkariak. 0 eta 3 urte bitarteko haurrei zuzenduta dago haurreskola berria eta ikasle kupoaren %60ra iritsi arte, matrikulazio epea zabaldua egongo da.

Umeak haurreskolan uzteko bi aukera eskaintzen dira, batetik, bost ordura artekoa eta bestetik, zortzi ordura arte. Lehenbiziko aukera hautatzen duten gurasoek 148 euro ordaindu behar dute eta gainontzekoek, berriz, 198 euro. Otordua, berriz, bakoitzak berea eraman beharko du.

Denboran aurrera egin heinean, zerbitzu berria hobetzen joango dela nabarmendu zuen Partzuergoko zuzendari den Maite Larrañagak; “Gure helburua zerbitzua emateaz gain, kalitatea eskaintzea ere bada. Hori denon artean lortuko dugu. Orain, gurasoak falta dira umeak ekartzeko”.

“Gure helburua zerbitzua emateaz gain, kalitatea eskaintzea ere bada”

Hezkuntza delegazioko koordinatzaile Arantxa Agirrek Udala zoriandu nahi izan zuen “egindako inbertsioagatik” eta zerbait berria estreinatzen denean esan ohi den bezala, “osasunarekin urratzea” opa zuen.

Haur eta nerabeentzat lokal berria

Urrestillan lokal berria egin da haur eta nerabeentzat, Herri Batzordeak egindako eskari baten ondorioz. Modu honetan, adin tartea banatzeko aukera izango du Gazteria sailak. Lokal berria 0 eta 6 urte bitarteko umei zuzenduta egongo da eta lehengo lokala, aldiz, 7 eta 14 urte artekoentzat geldituko da eta 15 eta 18 urte artekoek ere euren lanak egiteko edota ordenagailuan ibiltzeko erabiliko dute. Lokal berria astelehenetik larunbatera zabalduko da 15.00etatik 20.00etara eta gurasoak arduratuko dira bertako antolaketaz.

Azpeitiko historia herriko mugetatik ezagutuz

Lau ibilaldi egiteko aukera izango da Lagun Onak Mendi Bazkunaren eskutik



dagoeneko 700 urte igaro dira Gaztela eta Leongo erregeak, Fernando IVak, Azpeitiko biztanleei foruak eta herri-gutuna eman zizkiela, hiribildua sortuz. Horregatik, Udala urte guztian zehar 700. urteurrena gogoratzeko antolatzen ari den ekitaldien baitan, ekimen berri bat izango da: *Azpeitiari itzulua mugarik muga 700 urte betetzean.*

Honela, herriko mugetatik ibilaldiak egiteko aukera izango da Lagun Onak Mendi Bazkunaren eskutik. Guztira lau etapa izango dira, lehenbizikoa azaroaren 6an eta azkena, abenduaren 4ean:

- Azaroak 6. Azpeitia eta Matxinbenta arteko ibilbidea izango da eta 6/7 orduko iraupena izango du.
- Azaroak 13. Matxinbentatik hasi eta Ibarbia auzoan amaituko da ibilbidea eta 4/5 orduko iraupena izango du.

- Azaroak 27. Ibarbia auzotik Lasara joango dira eta 4/5 orduko iraupena izango du.

- Abenduak 4. Azken etapa Lasara hasiko da eta Azpeitian bukatu. Ibilbidea egiteko 5/6 ordu beharko dira. Ibilaldi guztiak 8:00etan hasiko dira plazatik eta 16 urtetik gorakoentzat zuzenduta daude. Antolatzaileek eskuorri bat banatuko dute etxe guztietan ibilaldi bakoitzaren grafikoarekin eta parte hartu nahi dutenek bertan eman beharko dute izena. Inskripzioa egiteko epea ibilaldi bakoitzeko asteko ostegunean amaituko da.

Informazio gehiago nahi dutenek Lagun Onak elkarteak lagunonak@euskalnet.net helbidera idatzi edo 943 812025 telefono zenbakira deitu beharko dute. Udaleko Kultura sailean ere argibideak eskatu ahal dira, kultura@azpeitia.net edo 943 157068 telefonoan.

udal erabakiak

Urriaren 7an Udalbatza osoak egindako bilkuran hartu ziren erabakiak honako hauek izan ziren:

1.- 2010eko uztailaren 22an egindako bilkuraren akta onartzea.

2.- Imanol Elias Odriozola herriko ohorezko kronista izendatzea.

3.- Azpeitiko Udala BERDINSAREA sarera atxikitzeko akordioa.

4.- 2010. ekitaldiko aurrekontuan 4. Kreditu Aldaketa onartzea.

5.- Nuarbe Auzoan Azpeitia Lantzen S.A.k eraiki dituen etxebizitza tasatuak saltzeko deialdia.

6.- Soreasu eremu azpian eraiki diren garajeak saltzeko baldintzak onartzea.

7.- Azpeitiko Irigarritasun plana onartzea (2010-2014).

8.- Azpeitiko Arau Osagarrien Berrazterketan "Aizpuru" 17.1 H.I.E eremurako Xehetasunezko Azterlanari behin betiko onarpena ematea.

9.- Azpeitiko Kirol Patronatuan eskaintzen diren kirol zerbitzuen esleipena.

10.- AGITAX Gipuzkoako Taxiaren Elkartek eskatuta 2011. ekitaldirako taxi zerbitzuaren tarifak onartzea.

11.- Badiolegi eremuko pabilioiak izango duten helbidea eta zenbakia.

URRIA

				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31



16, larunbata

DVD EMANALDIA Gaztetxoentzat
17:00etan
Lekua: Betharram

17, igandea

DVD EMANALDIA Gaztetxoentzat
17:00etan
Lekua: Betharram

ORGANO ERROMANTIKOA

Organojolea: Daniel Zaretsky
20:00etan
Lekua: Loiolako Basilika

UDAL MUSIKA BANDA KONTZERTUA

13:00etan
Lekua: Udaletxeko Arkupetan

18, astelehena

IPIIN KONTALARIA: PELLO AÑORGA
Ipuinak- 6 urtetik 9urtera artekoentzat
18:00etan
Lekua: Liburutegia

22, ostirala

ZINE KLUBA: "CANINO"
21:30ean
Lekua: Betharram Aretoan

23, larunbata

DVD EMANALDIA Gaztetxoentzat
17:00etan
Lekua: Betharram

XVIII. UURAKI IGOERA

Antolatzailea: Escuderia Lagun Artea
Topalekua Epaitegia Plaza

24, igandea

XVIII. UURAKI IGOERA
Antolatzailea: Escuderia Lagun Artea
Topalekua Epaitegia Plaza

UDALEKO GAZTERI SAILAK antolatuturik:

TXIKI BIRAN programa
12:00etan
Lekua: Udaletxeko Arkupetan

UDAZKENEAN ABESBATZA

IBAETA ABESBATZA
12:30ean
Lekua: Azpeitiko Parrokian

DVD EMANALDIA Gaztetxoentzat

17:00etan
Lekua: Betharram

ORGANO ERROMANTIKOA

Beasaingo Loinatz abesbatza
Organujolea: Koro Saenz
20:00etan
Lekua: Loiolako Basilika

25, astelehena

IPIIN KONTALARIA: MAITE FRANKO
Ipuinak- 5 urtetako haurrentzako
18:00etan
Lekua: Liburutegia

30, larunbata

DVD EMANALDIA Gaztetxoentzat
17:00etan
Lekua: Betharram

UDAZKENEAN ABESBATZA URRESTILLAKO ABESBATZA

19:30ean
Lekua: Meza ondoren, Urrestillan

IKASBERRI KROSS MIXTOA

18:00etan
Lekua: Plaza Nagusia
Antolatzailea: Ikasberri Azpeitiko Ikastola
Distantzia: 6,7 km

31, igandea

DVD EMANALDIA Gaztetxoentzat
17:00etan
Lekua: Betharram

UDAZKENEAN ABESBATZA HUNGARIAKO CANTEMUS CHILDREN'S CHOIR ABESBATZA

18:00etan
Lekua: Esklabetako eliza

botikatxandak



ALBERDI. Jose de Artetxe 6, Tel.: 943 81 59 74
Urriaren 2, 3, 11, 16, 17, 21 eta 28.

ARANBURU. Plaza Nagusia - Goiko kalea 2
Tel.: 943 81 13 50
Urriaren 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 12 eta 26.

BERISTAIN. Urbitarte auzoa 3, Tel.: 943 81 19 49
Urriaren 1, 15, 20 eta 27.

EIZAGIRRE. Enparan 29, Tel.: 943 81 12 74
Urriaren 14, 18, 23, 24 eta 29.

JACOME. Garmendi 21, Tel.: 943 08 02 58
Urriaren 13, 19, 22, 25, 30 eta 31.

